



FEDERACION VIZCAINA DE MONTAÑA
BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOA
MARTIN BARUA PICAZA nº 27, 4ª PTA 48003 BILBAO
Tfno.: 94 443 17 34 Fax: 94 444 35 62
www.bmf-fvm.org
<https://www.facebook.com/pages/Bmf-Fvm/597553177057267>



AKTA

BIZKAIKO MENDIZALE FEDERAZIOKO BATZAR OROKOR ARRUNTA

Bilbon, 2017ko Azaroaren 29ko 19:30etan BMF-ko Ohiko Batzarra eratu da bigarren deialdian. Batzarreko presidentebazala, Federazioko presidentea den Victor Vivar aritu da. Idazkari bezala aritu da BMF-ko idazkaria den Ainara Aparicio eta Ricardo Hernani, Dioni Perez eta Ana Sesumaga Zuzendaritza Batzordeko kideak ere bertan izan direlarik.

BERTARATUTAKOAK:

AKREDITAZIOA EDO ORDEZKARITZA ZUZENA DUTEN KLUBAK:

Gallarreta, Baskonia M.T, Gallarraga, GangurenM.T, GanzabalM.T,Osea, GanerantzM.T, Sestao Alpino C, Ubietamendi, Encartaciones, GoigainM.T, ArnotegiM.T, Gailurra M.T, Lezama Gailur M.T, MunarrikolandaM.T, Cicloturistas de Euskadi C. La Rioja, BurtotzaM.T, BeraskolaM.T, Lamino Kirol Kluba, AustarriM.T eta UntzaM.T.

BMF-KO HAUTESKUNDE BATZORDEAK LEGEGINTZALDI HONETARAKO ESKATUTAKO ORDEZKARITZA OROKORRA AURKEZTU EZ DUTEN KLUBAK BAINA BATZAR HONETARAKO PUNTUALKI AURKEZTU DUTENAK:

Arroletza, Alpino TabiraM.T, Juventus S.D, Etorkizuna M.T, SociedadMontañeraBilbao eta Egunsentia.

KIROLARIAK:

Domingo Garcia Valerio, Victor Manuel Vivar Moreno, Txaro Iglesias Lareo, Ricardo Hernani Perez, Joseba Undurraga Bidasolo eta Ainara Aparicio Arronategi.

TEKNIKOAK:

Koldobika Vadillo Astika eta Ander Gomez Perez.

Víctor-ek, BMF-ko presidente bezala, ongi etorria ematen die bertaratutakoei. Idazkariak Batzarrerera etorritako kideen informazioa ematen du: boto eskubideekin 27 klub (66 boto), 6 kirolarien ordezkari (6 boto) eta 2 ordezkari tekniko (2 boto), guztira 35 pertsona bertaratu direlarik 74 botorekin.

BATZARRAREN ERAKETA:

Aurreko datuak ikusita, Presidenteak ohiko batzarra eratutzat ematen du, Federazioko Estatutuen 20. Artikuluan datorrenari jarraituz.

Batzar Orokor hau, Bizkaiko Mendizale Federazioaren Presidenteak deitua izan da, BMFko estatutuetako 18. Artikuluak adierazten dituen epearen barruan, eta bertan jorratuko diren

gaiak, deialdiko gai zerrendan sartuz. Gai zerrendako helburu nagusiak 2017an buruturiko ekintzak eta 2018 lan lerroa aurkeztea direlarik.

Presidenteak, aurreko BMF-ko eskema jarraituz, ordezkari ofizialen laguntzaile bezala (klub bakoitzetik bat) etorri diren kideei batzarrerako sarrera baimendu die, boto eskubiderik ez dutela argi utziz Aurrera Kluba aretoan aurkitzen da baino ez du boto eskubiderik, ordezkari bezala aurkeztu ez duelako.

Beste gairik jorratzeko eskaerarik jaso ez denez, BMF-ko Estatutuen 19.artikulua jarraituz, deialdiko Gai zerrendara pasatzen da.

GAI ZERRENDAKO LEHEN PUNTUA: 2017KO MARTXOAREN 16AN OSPATUTAKO OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTAREN ANERTZEA HORRELA IKUSTEN BADA

Akta hauen edukia deialdiarekin batera Batzarreko kide guztiei bidalia izan dela jakinarazten da. Hori dela eta, hauen irakurtzea ez burutzea erabakitzen da eta hauen onarpenerako bozketara pasatzen da, beti ere horrela adosten bada. Batzarrari jakinarazten zaio Jose Ramón Alonsok email bidez, EMF-ko Presidente izendatzearekin batera, BMF-ko Zuzendaritza Batzordeko kide bezala bere dimisioa aurkeztu zuela dioen atala zuzentzea eskatu duela.

Azalpen honen ondoren, GoigainM.T klubak bere izena batera idaztea eskatzen du, aktan bereizita agertzen da eta. Aintzat hartzen da hau eta zuzenean bozkatzea erabakitzen da eta horrela adosten bada onartzea.

Jarraian bozketa burutzen da eta aho batez onartzen dute bertaratutakoek.



BIGARREN PUNTUA:ZUZENDARITZ ABATZORDEKO KIDE BERRI BATEN AURKEZPENA.

Arrazoi pertsonalak direla eta, komunikazioaz arduratzen den Blanca Irene Gonzalez Batzarkideak uztailen bere dimisioa aurkeztu zuela jakinarazten da. Bere postua garbiñeOkerantzak beteko du aurrerantzean. Estatutuen 28. Artikulua jarraituz, karguaren berrespena burutzen da, batzar osoa ados dagoelarik. Hori dela eta GabiñeOkerantza izango da aurrerantzean komunikazio arduraduna.

HIRUGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN SARRERA KUOTA.

Klub berrien alta eta baja kuotei dagokienez, iazko kuota berdina izango dela jakinarazten da eta formula hau erabiliz kalkulatu dela: $(BMF + EMF + Pyrenaica) \times 15$, emaitza= $(6.90 + 6.90 + 8.36) \times 15 = 22.16 \times 15 = 332.40\text{€}$.

LAUGARREN PUNTUA: KLUB BERRIEN ALTEN KOMUNIKAZIOA

Presidenteak betekizun legal guztiak betetzen dituzten bi klub eratu direla jakinarazten du. Klub hauek BMF-koBatzar orokorrean aurkeztu direnez, BMF-ko kide ofizial izatera pasatzen dira. Klub hauek honakoak dira: Bilboko Aitzeder Mendi Taldea eta Bakioko Sasiarte Mendi Taldea.

AitzederM.T klubekoek hitza hartu ondoren, batzarkide batzuek, Bilboko beste klubetan sartzeko aukera planteatu badute galdetu die. Klubeko ordezkariak, urte batzuk eremu konkretu batzuetan lanean dabilzala adierazi zuen, eta kluba sortzea, denbora pasa ahala eskaera eta harrera handiagoak zirela jabetu zirenean eman zutela.

Aurkezpen bakoitzaren ondoren, federazioko presidenteak klub berri guztiek dituzten betebeharrei buruz gogorarazten die: gutxieneko lizentziak, jarduerak burutzea eta BMF-n parte hartze aktiboa izatea.

BOSGARREN PUNTUA :PRESIDENTETZAREN TXOSTENA

Lehenik, Victor-ek aurreko batzarrean aurkeztu ziren klubei dagokionez, C.D. RunnerMice klubak sarrera kuota ez duela ordaindu jakinarazi du, izan ere klub honek Zallako Ubietaendi klubean sartzea erabaki du.

Bigarrenik, EMF-ra bidaltzea ahalegindu den BGME-ko arautegiaren hobekuntza proposamena planteatzea ezinezkoa izan dela adierazten zaio batzarrari.

Hirugarrenik, maiatzean Euskadin Kirolarekin loturiko lanbideak izateari eta horietan jarduteari buruzko lege berriak ezartzen dituen betekizunak betetzen dituzten eskola kiroleko monitoreak hautatu zirela jakinarazten da. Profesional hauek euskara gaitasun egokia zutela bermatu zen. Bizkaiko Foru Aldundia monitore hauen hautaketa burutu denaren jakitun da. Monitore hauek eta Bizkaiko Goi Mendi Eskolakoeak, bi ikastaro jaso dituzte, lehena istripuen kasuetako lehen sorospenak eta beste konkretu bat DPE-koa.

Laugarrenik, urte hasieran abiatutako buzoiaren katalogoaren berri ematen da eta 334 gailur katalogatuta daudela adierazten da, soilik 48 geratzen direlarik. Victorrek buzoiak eguneratua izatearen garrantzia adierazten du, eta izan ditzaketan hondatzeak jakinaraztea aplikazio berdina erabiliz. Gainontzeko lurralde federazio eta EMF-ren artean irizpideak bateratzeko proposamena ezin izan dela planteatu jakinarazten da.

Bosgarrenik, Mendi bideen Boluntarioritza proiektuan 66 boluntario ditugula jakinarazten da, bereziki kostaldeko GR123/E9 tartean lanean dabiltzalarik.

Seigarrenik, IBILKI proiektuaren harira, behar den bezala garatzen ari dela jakinarazten da eta BMF-arekin elkarlanean dabiltzala klubekin hitzaldiak emateko eta eskatzen dieten tokietan egoteko.

Zazpigarrenik, COBirekin eta Gallarraga klubarekin batera ekainean ospatutako orientazio martxan 150 pertsona inguru izan zirela jakinarazten da.

Bukatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiarekin, Eskola Kirola hitzarmena berritu dela jakinarazten da, jasotako zenbatekoa handiagoa izango delarik. Honegatik guztiagatik BMF zoriomtu du egindako lana dela eta.



SEIGARREN PUNTUA: BIZKAIKO GOI MENDI ESKOLA ETA ESKOLA KIROLA.

Ricardo-k guztira 23 ikastaro burutu direla jakinarazten du eta urte amaierarako 200 matrikulazio izatea espero direla. Bi ikastaro berri eskaini dira, bat neguko mendi erdiari buruzkoa eta bestea eskalatzaile/maisuen. Eskari handiena izan duen ikastaroa eskaladan hastapeneko izan da. Mendi argazkilaritza ikastaro bat ere burutu da 23 parte hartzaileekin. Klubei, ikastaroetan eskari txikia dagoela jakinarazten zaie eta beraien bazkideei ikastaro hauen berri ematea eskatzen die.

Eskola kirolari dagokionez, 64 aktibitate burutu direla jakinarazten da, 6436 parte hartzaile izan direlarik. Aldundiarekin adostutako ekintza guztiak burutu dira. 17/18 ikasturte berriari begira, ekintza alternatiboak sustatuko direla jakinarazten da, besteak beste: xendazaletasuna, espeleologia, mendi eskia, orientazioa eta via ferratak.

ZAZPIGARREN PUNTUA: MENDI BIDEETAN BURUTURIKO EKINTZEN TXOSTENA.

Lehenik Anak, 2017an buruturiko berhomologazioen berri ematen du. Honen harira, Gailurra klubeko ordezkariak, Aldundiko web orrian ez dagoela behar den bezala zehaztua GR 123-ko

zein tarte dauden homologatuak. Bere ustez informazio hobea izateko adierazita egon beharko litzateke.

Bigarrenik, maiatzerako antolatutako boluntarioen ikastaroan 66 boluntario izan zirela jakinarazten da, hauetatik 27 bikote eta 12 banakako. Egun, boluntario horiek mendi bide ezberdinen seinaleztapenean lanean dihardute.

Hirugarrenik, Urrian Otxandion Mirugain klubaren laguntzarekin buruturiko xendazaletasun jardunaldiak buruz informazioa ematen da. Hilaren 20an zazpi sustatzaile eta Aldundiarekin bilera bat ospatu zen. Hilaren 21ean, larunbata, PR-BI85 bidea burutu zen eta arratsalde hitzaldi batzuk ospatu ziren Antonio Turmo eta Jose Maria Nasarrerren parte hartzearekin.

Bukatzeko, 2018rako, 8 eta 12 urte bitarteko umeei eskainitako egun bateko jardunaldiak prestatzen ari direla jakinarazten da PR-BI 80 ibilbidetik Urkiola ezagutuz. Beste alde batetik xendazaletasun liga bat prestatzen ari direla azaltzen da. Liga horretarako, beraien inguruetatik irteeraren bat antolatu nahi duten klubak laguntza eskatzen da. Jarduera azaltzen da eta 9 klubek (Arroletza, Baskonia M.T, Gallarraga, Ganguren M.T, Osea, Alpino Tabira M.T, Turista Barakaldo, Ganerantz eta Ubietamendi) hasiera batean liga hau antolatzeko adostasuna adierazten dute. Urtarrilaren 9an, 19:00etan bilera bat egitea adosten da honen gainean eta 2018ko otsailetik abendura burutuko den jarduera honetan parte hartu nahi duen beste klubei ere etortzera deitzen zaie.

ZORTZIGARREN PUNTUA: REFUGIO DEL GORBEA.

Alde batetik, Victorrek mendi-aterpeko guardak sukalde libretik gasa kentzeko egindako eskaria onartu dutela jakinarazten du, honek dakarren arriskuagatik. Zerbitzu hori emango ez bada, web orritik informazio hori kentzea eskatzen dute. Beste alde batetik, datorren udari begira, guardak gazteekin koloniak antolatzeko asmoa duela adierazten da eta onartua izan den proiektu bat aurkeztu duela.

BEDERATZIGARREN PUNTUA: ERREGUAK ETA GALDERAK.

Azkenik, federaziotik klubei hauek sinatzeko bidalitako dokumentu batzuekin zerikusia duten zenbait gai komentatzen dira. BMF-ak dokumentu horien bidez federatuen helbide elektronikoak jasotzea zuen helburu, horrela beraiek antolatzen dituzten ekintzen informazioa bidaltzeko, izan ere askotan klubak bidaltzen zaizkie baina gero hauek ez dira bazkide-federatuengana iristen. Hori dela eta Zuzendaritza Federazioaren datuen babesaz arduratzen den enpresarekin jarri zen harremanetan, eta klubek BMF-k datu horiek erabiltzeko baimena emateko txostena egitea eskatu zion. Horretarako federatu bakoitzak bere klubari eta federazioari kirol lizentzia burutzeko baimena eman behar zion. Hori dela eta enpresak sinatu beharreko hiru dokumentu prestatu zituen. Klub batzuek, dokumentuetako bat sinatzeak ekar litzakeen ondorioez zalantzak adierazi dituzte eta datuen babesean aditua den beste abokatu batekin harremanetan jartzea erabakitzen da eta urtarrilean federaziora etortzea, denok berriz batu egoera zein den argi izateko eta egon daitezkeen zalantza guztiak argitzeko.

Besterik gabe, Federazioko presidentek bukatutzat ematen du batzarra, parte hartzaile guztiei beraien bertaratzea eskertuz.



Stua.: Ainara Aparicio
BMF Idazkaria



Stua.: Víctor Vivar
BMF Presidentea

